

2 TAKOIA HORMAN

Eskubeltzekoentzat ez zegoen zalantzarik: etxe misteriotsuan pertsona bat zegoen, tximiniatik irteten zen keak adierazten zuenez. Horregatik, atsedetik hartu gabe, ikerketa lanean hasi ziren. Eta bost egun pasa ondoren jaso zuten lanean etengabe aritze horren saria. Arratsaldean, Idoiak, *aireportuko* leihoetik, gizaseme bat ikusi zuen txalupak lehorreratuak zaudeneko hesiari salto egiten.

Hurrengo goizean, eskolara joan aurretik bildu zen Eskubeltz taldea hesia ondo ikertzeko asmoz.

—Ikusten duzue hori? —esan zuen Kiki k.-ek berehala.

—Nik ez dut ezer ikusten —erantzun zion Felixek.

Kiki k.-ek hesiaren gainean jarri zuen bere katagorria; eta honek, santiamen batean, landare igolari bati helduz jaitsi eta gauza biribil bat harrapatu zuen.

—E! —oihuka Pottolo—. Zapata baten takoia da!

—Entzun guztiok! —agindu zien Felixek—. Orain zapata batean takoia falta zaion gizonaren atzetik joan behar dugu.

Eskolara bidean, Eskubeltzekoek bilaketari ekin zioten. Idoiak, liburu zorroa eskuan zuela, bat-batean hots egin zuen:

—Hara hor! Hori da gizona.

Eta arratsaldean hau esan zien taldeko beste lagunei:

—Ikusiko duzue, bere gaitzengatik ezagutuko dugu.

☐ *Nolako galtzak zeramatzan zapata batean takoia falta zitzaion gizonak?*

